

Lurgi Agirre Ortega

F maila • Aipamena



Ni Lurgi Agirre Ortega naiz. 9 urte dauzkat eta Beasaingo Astigarreta auzoan bizi naiz. Murumendi eskolan ikasten dut eta 3. Maila bukatzen ari naiz.

Oso pozik jarri nintzen nire ipuina Idazlehiaketarako hautatua izan zela jakin nuenean eta are gehiago aipamen berezia lortu nuela jakitean. Nik idatzitako istorio honekin gustatuko litzaidake besteak jakitea pertsona guztiak daukagula eskubidea garena izateko. Animatzen zaituzte nire idazlana irakurtzea eta honen inguruan pentsatzea.

MUTILA IZATEKO MILAKA MODU DAUDE

Bazen behin Aitz izeneko mutil bat. Ile luzea eta iluna zuen eta koleta eramaten zuen. Belarriotakoak zeuzkan. Begi urdinak zituen eta sudur normala. Aitz oso jatorra eta eskuzabala zen. Beasaingo auzo txiki batean bizi zen eta egunero eskolara joaten zen.

Eskolan lagun asko zituen baina ikasle batzuk burla egiten zioten koleta eramaten zuelako, belarriotakoak zituelako eta gauza gehiagorengatik.

Ileagatik eta belarriotakoengatik horrela esaten zioten:

- Koleta neskena da! Moztu ezazu ilea!
- Belarriotakoak neskenak dira! Kendu itzazu!

Aitz ez zen batere ondo sentitzen hori entzuten zuenean. Askok sufritzen zuen. Hasieran kontra egiten saiatu zen. Borrokatu egiten zuen beraiekin baina ez zuen ezertarako balio. Beraiek berdin jarraitzen zuten.

Bere lagunak berari laguntzen saiatzen ziren baina Aitzek berdin berdin sufritzen jarraitzen zuen. Oso garbi zuen ez zituela koleta eta belarriotakoak kenduko horiek burla egiteagatik. Horretan ausarta zen Aitz. Bazekien garrantzitsuena zela bakoitza, bera izatea, bakoitzak nahi duen bezalakoa izatea.

Horrelakoetan irakasleak ere berarekin haserretzen ziren borrokatan ikusten zutelako. Behin irakasle bati kontatu zion gertatzen zitzaion. Aitzek oso harreman ona zuen irakasle horrekin. Oso ondo ulertzen zuen eta aholku onak ematen zizkion. Egun hartan, Ixabelek, borrokekin ez zuela ezer lortuko esan zion eta hobe zuela irakasleei esatea gertatzen zitzaion guztia. Beraiek lagunduko zioten arazoa konpontzen.

Bere amak baita, asko laguntzen zion horretan. Amak ondo ulertzen zuen Aitz eta aholku onak ematen zizkion. Aldi berean asko sufritzen zuen semea triste ikusten zuenean. Askotan esaten

zion ausarta izaten jarraitu behar zuela. Berari esker beste batzuk animatuko zirela besteen aurrean azaltzen, diren bezalakoak. Eta besteak bera errespetatzen ikasi beharko dutela.

Hurrengo ikasturteetan hori konpontzen joan zen eta burla egiten ziotenak poliki poliki Aitz errespetatzen hasi ziren.

Harrez gero eskolan lasaiago eta zoriontsuago ibiltzen hasi zen baina bere borroka beti izan zen estereotipoen aurka egitea.

Mutila izateko, mila modu daude. Nahi duzuna izan behar duzu eta ez besteak esaten dutena egin.